




Afliazioa %2,0 handitu zen irailean

Gizarte Segurantzako afliazioa
Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afliazioa, irailean, %2,0 handitu zen aurreko urteko hil beraren aldean. Horrela, uztailean hasitako joera berresten da, aurreko hileko erregistroa bi hamarrenetan gaudituz. Guztira, ia 995.000 afliazio erregistratu ziren, irail batean ezagutu den kopururik handiena.

Langabezia erregistratua %4,4 jaitsi zen irailean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Irailean, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %4,4 gutxitu zen. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 106.700 da, eta horietatik 62.100 emakumeak dira. Biztanleria gazteenak izan zuen emaitza negatiboa, aldakuntza tasa %6,2 hazi baitzen.



Euroguneko langabezia tasa %6,4ra murriztu zen

Langabezia tasa euroaren eremuan
Ehunekoak




Iturria: Eurostat.

Eurostaten arabera, **langabezia tasa** beheranzko joerarekin jarraitu zuen eta abuztuan (%6,4) hamarren bat murriztu zen aurreko hilaren aldean. Balio hori serie historiko osoko baxuena da, Txekia, Malta, Polonia eta Alemaniako erregistroei esker, ez baitzuten %3 gainditu. Aitzitik, Espainiak izan zuen tasarik altuena (%11,5).

Industria ekoizpena %2,1 gutxitu zen abuztuan

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko abuztua



Iturria: Eustat.

EAEko industriaren ekoizpena abuztuan aurreko urteko hil berean baino %2,1 txikiagoa izan zen. Jaitsiera horretan, energia ekoizpenaren beherakada (-%11,1) izan zen nagusi, eta ondoren kontsumoko ondasunena (-%5,6) eta bitarteko ondasunena (-%0,3). Aitzitik, ekipamendurako ondasunak izan ziren aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten bakarrak (%3,6).